



MAHAI SEKTORIALA

Ikuskarien deialdia.

Zerbitzu eginkizun bidez aldi baterako ikuskari izateko izangaien bi zerrenda osatzeko deialdia argitaratuko da.

Parte hartzea telematikoa izango da, eta baldintzak honakoak: irakasle funtzionarioa izatea duela 8 urte edo lehenagotik, zehapenik jaso ez izana, zerbitzu aktiboan, zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian egotea eta doktorego titulua, unibertsitate masterra, lizentziatura, ingeniari-tza, arkitektura edo titulu baliokidea izatea.

[Oinarriak](#) (behin-behinekoa NAOn argitaratu arte)

[Behin-behineko baremoa](#) (behin-behinekoa NAOn argitaratu arte)

STEILASetik eskatu dugu hezkuntza ikuskaritzaren funtzioa betetzen duten pertsonak atxiki beharreko lanpostuak ATP baten bidez eskaintzea, administrazioaren gainerako kontratazioetarako bezala, gardentasuna bermatze aldera.

Irakasle kontratatuak.

37/2020 Foru Aginduaren I. eranskina aldatzea, aldi baterako kontratazio zerrendetan titulazio berriak txertatzeko.

[Titulazioak gehitzeko ebazpenaren zirriborroa](#)

[I. eranskina aldatuta](#)

Beste kontu batzuk:

LEP: Oraindik ez da baieztatu probak non egingo diren, baina ziur aski NUPen izango dela jakinarazi digute. Era berean, ez digute ziurtatu datorren ikasturtean Bigarren Hezkuntzako oposiziorik egongo den.

LET: Departamentuak jakinarazi digu Bigarren Hezkuntzako LET ekainean izango dela, eta maisu-maistren kidegoko eta Lanbide Heziketako espezialitate guztiak abuztuan izango direla.

STEILASetik eskatu dugu:

Norberaren bizitza, lana eta familia uztartzen laguntzeko neurriak ezartzea, honako hauek ezarriz:



+Izangaiak ikasturte bakoitzean zein eremutan lan egin nahi duen eta zein espezialitate, hizkuntza-eskakizun eta hizkuntzatan lan egin nahi duen aukeratzeko eskubidea.

+Interinoen kasuan, beren bizilekutik 50 kilometro baino gehiagora dauden lanpostuei uko egiteko aukera, zigorrik gabe, adingabeak edo beren kargurako aurrekoak zaintzen direnean. Trukeak (postuak trukatzeko aukera plaza hartu ondoren).

+Kontratazio zerrendak eta oposizioak deslotzea eta urteroko birbaremazioa, lan esperientziaren eta titulazio berrien arabera.

+Ordezkapenak esleitzeko epea laburtzea (24 ordu ikastetxeak izapidetzen hasten duenetik) eta ikasturte osoan zehar hainbat ikastetxetan ordezkapenak egiteko foru destinoko kontratuen aukera berreskuratzea, ordezkapenak azkartzeko.

-Departamentuak Langileen Estatutu berriaren negoziatziora honako hauek eramatea eskatzen dugu:

+Galdutako erosahalmena berreskuratzea, karrera profesionalari dagokiona kobratzeko jardunaren ebaluazioaren betekizuna ezabatzea, proportzionaltasun indizea mantentzea eta Nafarroako aurrekontu orokorretan soldata KPIaren arabera eguneratzea urtero.



www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus